




Testuak egokiteko zenbait "errezeta" erraz



Entzumen Urritasuneko Talde Espezifikoa




Marisol Hornasek itzulia

Zer ezagutu behar dugu testu bat egokitu baino lehen?

- Testuaren gaia.
- Egokitzapena egingo den ikaslearen ezaugarriak:
 - Idazketa eta irakurketaren jakite maila.
 - Bere itxaropenak.
 - Bere ezagupenak.
- Zenbait “errezeta” erraz testuak egokitzekeo.
- Testua bera:
 - Bere tipologia.
 - Bere helburua.
 - Bere estiloa.
 - Zein egoeratan erabiliko den...

Zein testu egokitu ditzakegu?

- Edozein testu egokitu daiteke:
- Eskuliburuak eta gidaliburuak.
- Klaseko apunteak.
- Ariketak eta azterketak.
- Beste testuak...



Zer da testu bat egokitzea?

- **Testu bat egokitzea ez da:**

- Kontzeptu edo ideia garrantzitsuak ezabatzea.
- Erabat aldatzea.
- Laburtzea.
- Eskematikoki jartzea.
- Bere edukia sinplifikatzea.

Zer da testu bat egokitzea?

Testu bat egokitzea honako hau da:

- Idazketa eta irakurketa arazoak dituzten irakurleentzat eskuragarriagoa gerta dadin, bere idazketan zenbait aldaketa egitea.
- Ohikoagoa eta arruntagoa izan dadin hiztegia sinplifikatzea.
- Izan ditzakeen anbiguotasunak eta zentzu metaforikoak argitzea...
- Beharrezkoak ez diren zailtasun erretorikoak ekiditea.
- Ikasleei edukiak hurreratzeko forma erabiltzea.

Zer da testu bat egokitzea?

Testu bat egokitzea honako hau da:

- Irakurketa erraztea adibide, eskema, konparaketa, argazki, marrazki, esperientzi pertsonalak, pertsona gorren erreferentziak, zeinuen hizkuntza...gehituz.

Testu baten egokitzapenaren adibide egokiena Antonio Machadok utzi digu *Juan de Mairena* idazlanean:

Mairena Erretorika eta Poetikako bere klasean:

Mairena.- Pérez jauna, atera zaitez harbelera eta idatz ezazu:

“Los Eventos consuetudinarios que acontecen en la rúa”

Ikasleak diktatzen diotena idazten du:

- Jar ezazu hori idazkera poetikoan.

Ikasleak, ongi pentsatu eta gero idazten du:

“Kalean gertatzen dena”

Mairena: - Ez dago gaizki.



EZ AHAZTU

- Testu bat egokitzea pentsatu baduzu, une horretan ikasketa-erakusketarako edukia, forma baino garrantzitsuagoa delako da.
- Egokitzapenaren helburua ikasleek kontzeptu eta ideiak errazago uler ditzaten laguntza ematea da, ez hiztegia zabaldu edo ulermena hobetzea.

Ezinezkoa da testu guztientzat, ikasle guztientzat edo egoera guztientzat baliagarriak diren “errezetak” ematea, baina...

**NORMALKI BALIAGARRIAK IZAN
DAITEZKEEN ZENBAIT BALIABIDE
ERRAZ IKUS DITZAGUN**

- **Ez ezazu literaturaren edertasuna bilatu, bere ulermena baizik.**
- **Testu erraz, garbi eta zuzenak egin itzazu.**

- **Perpaus konposatu edo luze bat, zenbait sinpleetan zati dezakezu.**
- **Hobe paragrafo motzak.**

- **Subjektuaren identifikazioa erraz ezazu.**
- **Perpausaren elementuen ordenak bere ulermena erraz dezake: subjektua, predikatua, objektu zuzena, zeharkako objektua, osagarri zirkunstantziala...**

- **Testuak argitasunez egituratu.**
- **Egokiena izango litzateke perpaus bakoitzak ideia nagusi bat izatea.**

- **Kontuz ibili izenordainak erabiltzen dituzunean. Bere aurrekaria garbi geratu behar da, ez bada hala, hobe izena errepikatzea.**
- **Izenordain erlatiboek dagokienez hobe “que” “el cual” baino, eta beti bere aurrekaria gertu izatea.**
- **Posible ez bada, hobe da izena errepikatzea erlatiboetako menpeko perpaus bat erabiltzea baino.**

- **Maiz erabiltzen diren konjuntzioaz baliatu: hobe “pero”, “no obstante” baino, hobe “y”, “asimismo” baino, e.a.**
- **Ziurta ezazu kausazko, baldintzazko edo perpauk kontzesiboak argi eta garbi aditzera ematen dituzula.**

- **Ezinbestekoak diren hitz landu edo teknikoak argitu, bai zuzenean edo parentesi artean, orrialde behealdean, sinonimoak, perifrasiak edo perpaus ez-murrizgarriak erabiliz, adibidez: “o sea”, “esto quiere decir”, “esto significa...”.**

Nahitaezkoak ez diren hitz tekniko edo landuentzat ohikoagoak diren aukerak bilatu.

- **Zenbaitetan hitz baten etimologia jakiteak bere ulermen eta oroitzapena errazten du.**
- **Erene ibili zenbakiekin!: 23 errazagoa da ulertzeko, hogeitahirugarrena baino.**

- **“Se” daramaten perpausak ekidin, gehienbat pasiboetan eta inbertsonal erreflexuetan eta era berean, bihurkari eta elkarkariek duten anbiguetatea albo batean utzi.**

- **Aditz forma errazak erabili: hobe forma sinpleak konposatuak baino.**
- **Hobe perpaus aktiboak pasiboak baino, modu indikatiboa subjuntiboa baino eta orainaldia geroaldia baino. Gogoan izan orainaldiak beste denbora batzuk ordezkatu ditzakeela.**

- **Ahal bada ez erabili kontzeptu abstraktoak. Hobe da “kolore zuriaz” hitzegieta “zuritasunaz” baino.**
- **Beharrezkoak ez diren izenondoak ezabatu.**

- **Kontuz ibili hizkera figuratibo eta metaforikoarekin. Garrantzitsua bada, bere zentzu erreala adierazteko ahalegina egin.**
- **Atsotitzak, esaerak eta ohikoak ez diren lokuzioak ekidin.**
- **Ironia, zentzu bikoitza, ezaguera inplizituei buruzko aipamena, errezeloa... albo batera utzi.**

- **Hiztegia erabiltzeko unean sistematikoa izateko ahalegina egin.**
- **Hitz berriak, argota eta atzerriko hitzak soilik beharrezkoak direnean erabili eta ongi azaltzeko saiakera egin.**
- **Bereziki garrantzitsua den hitz bat erabili behar baduzu, ohikoa bihurtu arte testuinguru ezberdinetan errepikatu.**

- **Ikusmen-argibideak atxiki testuari: argazkiak, marrazkiak, eskemak, grafikoak...**
- **Hobe eguneroko bizitzako adibideak erabiltzea, ikasleak parteka ditzakeen esperientziak, gorrak diren elkartearen ohiturak, Zeinuen Hizkuntzakoak...**

- **Espazioa ongi banatzeak irakurketari argitasuna eta erraztasuna emango dio.**
- **Testuak galdera eta erantzunekin egituratzea oso lagungarria da.**

- **Baliabide tipografikoak ere oso lagungarriak dira: mota ezberdineko hizkiak, kolore ezberdinak, hizki lodiak, koskatzeak, atalak...**

Ikasle gorrek testu egokitu bat zer den ulertu behar dute:

- Kontzeptualki ez da testu urriagoa izan behar.
- Egokitu gabeko testu bat baino luzeagoa izan daiteke.
- Irakurketa aktibo bat eskatzen du.
- Ikasleak erabil dezakeen tresna bat izan daiteke, bere beharren arabera erabili behar duena.